

Familia agurgarriak.

Bizitzen ari garen momentu berezi hauetaz kontziente izanik, berri on batekin hurbiltzen gara gaurkoan zuengana. LA SALLE UDALEKUAK 2021. Udalekuak antolatze gogo eta ilusioarekin aurkitzen gara eta hasiak gara, aurtengo udaran gure begirada jartzen. **Ez dakigu zer egoeratan aurkituko garen ikasturte amaieran, ezta ere erakunde ofizialek momentua iristean, udalekuak aurrera eramateko aukerarik emango diguten, baina egi bihurtu daitezkeela onartuaz, udaleku proiektua martxan jartzen dugu.**

Pandemia egoerak, eta honek suposatzen dituen baldintzak, aurten Udalekuak modu ezberdin batean antolatzera eramaten gaitu, ezinbestean. Honek suposatzen du mailaren bat ezingo duela parte hartu, eta egun gutxiago joan ahal izango duela talde bakoitza. Asko sentitzen dugu horrela izatea, baina egoerak saihestesinak dira kasu batzuetan.

Maila-Gela	Udalekua	Plazak	Datak	Aurretiko diru-sarrera	Prezioa guztira
LH 5	San Asensio	50	Uztailak 1-8	65€	Finkatzeko
LH 6	San Asensio	50	Uztailak 8-15	65€	Finkatzeko
DBH 2	Mendigorria	32	Ekainak 25-30	45€	Finkatzeko
DBH 1	Mendigorria	32	Uztailak 2-7	45€	Finkatzeko
DBH 4A	Izaba	20	Uztailak 9-14	50€	Finkatzeko
DBH 4B	Izaba	20	Uztailak 2-7	50€	Finkatzeko

Garrantzitsua: Udalekuak aurrera eraman ahal izateko, aurten inoiz baino gehiago, parte-hartzaile kopuru minimo bat eskatzen digu. Ez bagara partaidetzara horretara iristen, beste modu batean antolatzen saiatuko gara hasiera batean, eta ezinezkoa balitz, bertan behera utzi beharko dugula ulertuko duzuela ziur gaude.

Proposatzen dizkizuegun udalekuetan, osasun eta instituzio aginteak momenturo emandako protokolo eta araudiak errespetatu, eta arduraz eramango ditugu aurrera. Ikastetxeko irakasle eta begirale talde jator eta arduratsu bat izango da, zuen seme-alabekin batera egun polit horiek elkarrekin biziko dituenak. Udaleku bakoitzeko baldintzak antolatzen ari gara eta izan bezain pronto, antolatuko ditugun bileretan azaduko ditugu.

Azken prezioari dagokionez, lantzen ari garen gaia da momentu honetan, pandemia egoera zailtzen ari da zenbait prezio eta gastu aurretik jakitea. Hau ere, izan bezain pronto helaraziko dizuegu. Beti bezala, prezio ahalik eta kontenituenak izaten saiatuko gara.

Guztiok ulertu eta onartu beharko dugu, ziurgabetasun egoera handia dela, udalekuak aurrera eraman ahal izatea, baldintza asko dituela eta horietako gehienak ez daudela eskolaren esku

(pandemiaren egoera, erkidego bakoitzaren azken erabaki eta baldintzak, Eusko Jaurlaritzaren jarrera, etab.). Beraz, antolatzen ari gara, eta eskaintza egiten, baina izan gaitetzen guztiok kontziente, bertan behera gelditu daitezkeela edozein momentutan.

Udaleku proposamen honen inguruko informazio gehiago, laster izango dugun bilera batean emango dizuegu. Bertan azalduko dugu protokoloaren nondik norakoa egonaldi hauietarako.

IZEN-EMATEA:

Izen emateko, aurretiko ordainketa bat egin beharko da fidantza moduan. Galdetegia betetzean, maiatzaren 10etik aurrera, kontu korrontetik pasako da.

San Asensio: 65€

Mendigorria: 45€

Izaba: 50€

Izen-emateko epea: maiatzaren 7a.

Izen-emateko bidea: Gure web orrian, ala hemen sartuz [IZEN-EMATEA](#)

Aldez aurretik, mila esker zuen arretagatik. Sentitzen dugu, udaleku kontu honetan ere gaur egungo errealitateak ezartzen dizkigun murrizketak, ahalik eta hobekien egiten saiatzen ari gara, ahalik eta ikasle gehiengan iristeko.

Aurrera egiteko itxaropenarekin, jaso gure agurrik beroena.